

**Arartekoaren 2015R-2477-14 Ebazpena, 2015eko azaroaren 20koa. Honen bidez, gomendatzen zaio Herri Administrazio eta Justizia Sailari berrikus ditzala bitarteko funtzionarioei euskara ikasteko deialdi orokorreko 5 orduko ikastaro trinkoetan eta autoikaskuntzako ikastaroetan parte hartzeko ezarri zaizkien mugak (kexa-espediterearen zk.: 2477/2014/QC).**

### Aurrekariak

1.- 2014ko abenduan, kexa-idazki bat jaso zen erakunde honetan, 2014-2015 ikasturtean euskara ikasteko Herri Administrazio eta Justizia Sailak iragarri zuen deialdi orokorraren inguruan. Deialdia Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia administrazioetako langileen euskarazko hizkuntza-gaitasuna hobetzea helburu duen euskalduntze eta alfabetatze programaren barruan egin da.

Kexaren bidez, bereizkeria-egoera bat salatu zen, izan ere, kexagileen arabera, bitarteko funtzionarioen kolektiboa ez da berdin tratatzen, pertsona horiek ezin baitute eskatu 5 orduko ikastarorik, ezta autoikaskuntza ikastarorik ere.

Kexagileen iritziz, praktika hori ez dator bat 1999ko ekainaren 28ko 1999/70/EE Zuzentarauarekin, iraupen jakineko lanari buruz. Europar Batasuneko Justizia Auzitegi Nagusiak adierazi duenez, honelaxe interpretatu behar da zuzentaria: bitarteko funtzionarioei eta karrerako funtzionarioei dagokienez, iraupen jakin bateko zerbitzu-harremana izate hutsagatik egon daitekeen edozein bereizketa baztertu behar da, baldin eta tratu desberdina justifikatzen duten arrazoi objektiborik ez badago.

Kexagileen ustez, jokabide hori ez dator bat Botere Judizialari buruzko Lege Organikoaren aurreikuspenekin, izan ere, lege horrek bitarteko funtzionarioengana zabaltzen du karrerako funtzionarioen araubidea, bitarteko-izaera horri dagokion guztian (474.2 eta 504.2 artikulua). Era berean, jarduera horretan ez da kontuan hartzen bitarteko funtzionarioak EAEko Administrazio Orokorreko karrerako funtzionarioekin berdindu izana, abuztuaren 31ko 223/2010 Dekretuaren bidez onartu den lan-baldintzak arautzen dituen IV. akordioan lortu zena.

Zehazki, aurrekoa planteatuta, eta IV. akordio arautzaileko 34. artikuluan ezarritakoa, espresuki hauxe xedatzen duena *Euskadiko administrazio orokorreko funtzionario publikoentzako adostu diren baimenak eta lizentziak zuzen-zuzenean aplikatzekoak izango zaizkie Euskadiko justizia-administrazioko funtzionarioei*, erreferentziatzen hartuta, kexagileek ohartarazi dute EAEko Administrazio Orokorrean egiten diren euskara ikasteko deialdietan ez dela bereizketarik egiten karrerako funtzionarioen eta bitarteko funtzionarioen artean, lanaldi osoko liberazioa eskatzen duten ikastaroetan parte hartzeko baimena eman behar denean.

Halaber, ohartarazi dutenez, denboran zehar argitaratu diren deialdi batzuk, Justizia Administrazioko bulego judizialtan lan egiten duten eta lan-kontratu mugagabea

duzen langileei zein lanpostu huts bat betetzen ari diren aldi baterako langileei zuzenduak konparatzen badira, kasu horietan, 5 orduko ikastaroetan eta autoikaskuntza ikastaroetan sartu ahal dela egiazta daiteke. Azken hori dela eta erabaki dute salaketa jartzea. Hain zuzen, Justizia Administrazioako Zuzendaritza berean antzekoak diren kasuetan erabaki desberdinak hartzen ari direla salatu dute.

2.- Aurkeztutako kexa izapidetzeko onartu ondoren, erakunde honek lankidetzaskaera bidali zion Herri Administrazio eta Justizia Sailari. Zehazki, Justizia Administrazioako aldi baterako langileei edo EAEko Administrazio Orokorreko bitarteko funtzionarioei ematen zaien tratuarekin konparatuta, bitarteko funtzionario horiei tratu berezitua ematea justifika daitezkeen arrazoen inguruko informazioa eskatu zitzaion.

3- Gure eskaerari erantzunez, 2015eko otsailean, erakunde honek Herri Administrazio eta Justizia sailburuaren txosten bat jaso zuen. Horren bidez, alde batetik, onartu zuten urtero egiten diren euskara ikasteko deialdietan –EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langileei zuzenduta daudenetan– mugak jartzen zirela ikastaroetan parte hartzeko, hain zuzen, bitarteko funtzionarioak deialdi horietatik kanpo geratzen dira; bestalde, azaldu zituzten irizpide ezberdinak aplikatzeko arrazoiak:

- Administrazio orok dituen autoantolaketarako gaitasunari esker, administrazio horrek modu eraginkor eta eragingarrian antola dezake maila desberdineko langileei ematen zaien prestakuntzarako eta euskara ikastaroetarako sarbidea, horretarako zuzendutako giza baliabideak zein baliabide materialak ahalik eta hobekien erabiltzen saiatuz.
- Konparatu nahi diren langile-kolektiboen izaera desberdina da, alegia, Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden funtzionarioak eremu nazionalako kidegokoak dira, kexan aipatutako langileek, aldiz, EAEko Administrazio Orokorrean dihardute lanean.
- Argi eta garbi ikusten da, hortaz, aipatutako bi kolektiboen arteko desberdintasuna, lan-harreman motari dagokionez. Ildo honetan, txostenean zehaztu zutenez, EAEko Justizia Administrazioako funtzionarioak Euskal Administrazio Orokorreko funtzionarioekin nola parekatu arautzeko IV. akordioa ezin da inola ere erabili aldi baterako langileak parekatzeko, azken horiek ez baitaude funtzionarioen hitzarmenaren mende, EAEko Administrazioako Lan-kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenaren mende baizik, eta horrek, bere 70. artikuluan, bai aipatzen du 5 orduko eta autoikaskuntza ikastaroen eskaintza.
- Diru-baliabide mugatuak. Txostenean esandakoaren arabera, ekonomiaren aldetik une honetan bizi diren inguruabar bereziak direla

medio, baliabide materialak arlo horretarako jarritako aurrekontuari egokitu behar zaizkio, eta horrek hainbat mugapen eta murrizketa dakartza, ikastaroetan parte hartu ahal duten langileei dagokienez.

4.- Txostenaren edukia aztertu ondoren eta kexaren inguruan behin betiko ebazpena eman baino lehen, erakunde honek beharrezkotzat jo zuen Herri Administrazio eta Justizia Saileko arduradunei hainbat balorazio helaraztea eta horiei buruzko iritziz arrazoituaren zain geratu ginen.

Balorazio horiek ez errepikatzearen, jarraian dauden ataletako batean emango dugu horiei buruzko azalpena.

5.- Jaso gabe zegoen erantzuna errekeritu behar izan genuen, eta azkenean, 2015eko urrian, jaso dugu Herri Administrazio eta Justizia sailburuaren azken txostena. Horretan, saihestu egin da erakunde honen balorazioak aztertzea, bitarteko funtzionarioen kolektiboari ezarritako mugen artean bereizketarik ikusten ez dela esanez.

Berrero ere aipatu da autoantolaketarako gaitasuna, baita gaur egungo egoera ekonomikoa dela eta aurrekontuan mugak egotea ere, eta bukatzeko, azpimarratu da lortu nahi duen helburua zera dela: administrazioan irauteko asmoa duten langileak euskalduntzeko ahaleginak egitea, eta horrela, erabilitako baliabideen errentagarritasun sozial handiagoa lortzea.

6.- Kexa izapidetzeko erabilitako denboran, Herri Administrazio eta Justizia Sailak deialdi orokorra iragarri du –2015-2016 ikasturtean euskara ikasteko– eta horretan ere, bitarteko funtzionarioei murriztu zaizkie 5 orduko eta autoikaskuntza ikastaroetan parte hartzeko aukerak.

### Gogoetak

1.- Ebazpen honetako aurrekarietako lehenengoan esan dugun bezalaxe, kexa honen sustatzaileek, besteak beste, zera leporatzen diete Herri Administrazio eta Justizia Saileko arduradunei: bitarteko funtzionarioei euskara ikastaro modalitate jakin batzuetarako sarbidea mugatzeko praktika horrekin ez dela betetzen abuztuaren 31ko 223/2010 Dekretuaren bidez onartutako lan-baldintzak arautzeko IV. akordioan lortutako konpromisoa – funtzionarioekin parekatzea, alegia. Era berean, agerian utzi nahi dute sail beraren barruan tratatu desberdina ematen dela, kexagileak eta lanpostu huts bat betetzen ari diren aldi baterako langileen kolektiboa konparatuz gero. Izan ere, kexa aurkeztu duten pertsonak ez bezala, hutsik dagoen lanpostu bat betetzen duten aldi baterako langileek badute 5 orduko eta autoikaskuntza ikastaroetan parte hartzeko aukera.

Halaber, ebazpen honetako aurrekarietan zera adierazi nahi izan dugu: kexagileek aurkeztutako alegazioen berri izanda, erakunde honek Herri Administrazio eta Justizia Sailean hasierako esku-hartzea planteatu zuenean, sailburuak bere erantzunean azpimarratu zuen, eta horixe ulertarazi nahi zigun batez ere, interesatuak oso oker zebiltzala, haien kolektiboa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren zerbitzura dauden Lan-kontratudunen Kolektiboentzako Hitzarmenaren mende dauden aldi baterako langileekin zuzenean parekatu nahi bazuten. Bide batez, ez zuen bere iritzirik eman Administrazio Orokorreko langileekin parekatu ez izanaren inguruan. Azken horrek, Justizia Administrazioaren eremuan gertatzen den ez bezala, ez ditu bereizketarik egiten karrerako eta bitarteko funtzionarioen artean, euskara ikastaro modalitateak aukeratzeko orduan.

Dudarik gabe, EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden langile-kolektibo horiek –funtzionarioek zein langile lan-kontratudunek– duten lan-harremana ez da berdina, ondorioz, ematen zaien tratua ere desberdina izan daiteke, bereizkeriatzat jo beharrik izan gabe.

Hala ere, jarraitu aurretik, zera azpimarratu behar dugu: esandakoa gorabehera, ezin dugu ahaztu aztertzen ari garen kexan benetan eztabaidatzen den kontua, hau da, aztertu behar da EAEko Justizia Administrazioak bete ote duen bere gain hartutako konpromisoa, alegia, administrazio horren langileen lan-baldintzak arautzeko orduan, EAEko Justizia Administrazioaren eremuan ezarritakoekin parekatzeko asmoa. Eremu horretan, izan ere, euskara ikastaroetan parte hartzeko aukerari dagokionez, bitarteko funtzionarioei karrerako funtzionarioentzat ezarritako araubide bera aplikatzen zaie.

2.- Eztabaidagaia zehaztuta, gauza bat azpimarratzeko unea da: kexa aurkeztea eragin duen tratua desberdina ematea justifika daitezkeen arrazoiez galdetuta, Herri Administrazio eta Justizia sailburuak bere sailaren jarduera defendatu du beti, argudio bi erabiliz. Alde batetik, aipatu du euskara ikastaroetarako sarbidea modu eraginkor eta eragingarrian egituratzeko sail horrek duen autoantolaketarako gaitasuna, eta bestalde, diru-baliabiderik eza.

Zer esanik ez, aitortu behar da bai autoantolaketarako gaitasuna bai diru-baliabideak eragile edo osagai erabakigarriak izan daitezkeela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia administrazioetako langileen euskarazko hizkuntza-gaitasuna hobetzea helburu duen euskalduntze eta alfabetatze programaren barruan programatutako ikastaroak antolatzeko orduan.

Dena den, kontuan hartu behar da, orobat, ez autoantolaketarako gaitasuna, ezta diru-baliabideak ere, ezin direla erabili EAEko Justizia Administrazioan aurretik egituratu den hizkuntza normalizazioaren prozesua edo alde aurretik hartutako langileekiko konpromisoak aldatzeko.

Adierazi dugun horretan kontraesanak saihesteko, nahitaezkoa da, lehen buruan, Euskal Autonomia Erkidegoko justizia administrazioko hizkuntza-normalizazioari buruzko ekainaren 29ko 174/2010 Dekretuaren edukia aztertzea (EHAA, 132. zk., uztailaren 12koa).

Dekretua irakurtzeari esker, berrets daiteke Herri Administrazio eta Justizia Sailak konpromisoa hartu duela Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten langileen hizkuntza-gaikuntza errazte aldera, neurri egokiak hartzeko. Besteak beste, bere gain hartu du euskaran trebatzeko ikastaroen eskaintza arautzea.

Alderdi zehatz horri dagokionez, hau da, euskaran trebatzeko ikastaroen eskaintza arautzeari dagokionez, dekretuak jasotzen ditu ikastaroetan parte hartuko duten langileak hautatzeko ezarriko diren lehentasun-mailak. Izan ere, 7 lehentasun-maila bereizi dira, honako hauek kontuan hartuta: diru-laguntza bereizita dagoen edo ez, lehentasunezko zat jotako organo, zerbitzu edo unitateetako langileak diren edo ez, euskara erabiltzeko programak dituzten organoetako langileak diren edo ez. Ondoren, norberaren beste inguruabar batzuk hartuko dira kontuan, hala nola, antzinate handiagoa, aurreko ekitaldietan eskainitako ikastaroetan etekin handiena atera izana, etab. (18.1 artikulua).

Halaber, dekretuak xedatzen duenez, lehentasun-maila bakoitzean honako hurrenkera honi jarraituko zaio: lehendabizi, karrerako funtzionarioak hartuko dira kontuan; gero, hutsik dagoen lanpostu bat betetzen ari diren bitarteko funtzionarioak; eta azkenik, gainerako bitarteko funtzionarioak (18.2 artikulua).

Bigarrenik, eta langileekin hartutako konpromisoari dagokionez, EAEko Justizia Administrazioko funtzionarioak Euskal Administrazio Orokorreko funtzionarioekin nola parekatu arautzeko IV. akordioa onartzen duen abuztuaren 31ko 223/2010 Dekretura jo behar dugu (EHAA, 177. zk., irailaren 14koa).

Akordioak bere VII. tituluaren hizkuntza-normalizazioari buruz hitz egiten du, eta horren hasieran agertzen den 60. artikuluan zera xedatu da: *“Euskadiko justizia-administrazioko bitarteko funtzionarioak ere hizkuntza-normalizaziorako planaren barruan egongo dira, baina lanpostu-jabedunek lehentasuna izango dute bitartekoen aldean. Normalizazio-programak herritarrekin zuzeneko harremana duten lanpostuen euskalduntzea lehenetsi beharko du, eta izapideak euskaraz egin ahal izateko bidea zabaldu beharko du. (...)”*.

Hain zuzen ere, akordio horrek hainbat modalitate aipatzen ditu, euskara ikastaroari dagokionez, eta autoikaskuntza edo nork bere kasako ikastaroen kasuan soilik da bereziki murriztailea.

Kasu honetan gure lehen esku-hartzeari erantzunez jaso genuen txostena aztertu ondoren, hainbat balorazio helarazi genizkien Herri Administrazio eta Justizia Saileko arduradunei. Horietan azaldutakoa berriz ere esan behar dugu: dekretu

horiek irakurtzeak ulertarazi digu bertan jasota dauden hautaketa-irizpideen bidez langileek hizkuntza-gaitasuna azkar lortzeari eman nahi zaiola lehentasuna, normalizazioaren xede desberdinak kontuan hartuta (hau da: diru-laguntza bereizita dagoen edo ez, lehentasunezko zatitako organo, zerbitzu edo unitateetako langileak diren edo ez, euskara erabiltzeko programak dituzten organoetako langileak diren edo ez), eta norberaren beste inguruabar batzuk ere aintzat hartuta, hala nola, antzinate handiagoa, aurreko ekitaldietan eskaintako ikastaroetan etekin handiena ateratzea, etab. Edonola ere, lehentasun-maila bakoitzean lehenetsiko da karrerako funtzionarioen prestakuntza, eta gero, bitarteko funtzionarioak trebatzea hartuko da kontuan, alabaina, inola ere ez dira mugatuko azken horiek prestakuntza jasotzeko aukerak.

Horregatik, araubide hura nahitaezko erreferentzia izanik, ez gaude bat sailburuak esandakoarekin, hain zuzen, ez dugu uste funtzionarioek ikastaro modalitate zehatz batzuetarako sarbidea izateko ezarri diren mugak arrazoitze autoantolatetarako gaitasuna baliatzearen ondorio direlako argudioa erabil daitekeenik.

3.- Horretaz gain, erakunde honetara jo duten interesatuek, salaketan jasotakoa indartzeko nahian, leporatu diete Herri Administrazio eta Justizia Saileko arduradunei ezarritako praktika ez datorrela bat iraupen jakineko lanari buruzko 1999ko ekainaren 28ko 1999/70/EE Zuzentarauarekin.

Horretarako, aipatu dute Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2011ko irailaren 8ko epaia. Izan ere, horren arabera, aipatutako Zuzentarauaren eranskinean jasota dagoen iraupen jakin bateko lanari buruzko esparru-akordio 4. klausula honelaxe interpretatu behar da: bitarteko funtzionarioei eta karrerako funtzionarioei dagokienez, iraupen jakin bateko zerbitzu-harremana izate hutsagatik egon daitekeen edozein bereizketa baztertu behar da, baldin eta tratu desberdina justifikatuko lukeen arrazoi objektiborik ez badago.

Aipatutako epaian, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak, klausula horrek aurretik aipatu dugun debekua barne hartzen duela esan ondoren, azaltzen du arrazoi objektiboei buruzko kontzeptua *"requiere que la desigualdad de trato observada esté justificada por la existencia de elementos precisos y concretos, que caracterizan la condición de trabajo de que se trata, en el contexto específico en que se enmarca y con arreglo a criterios objetivos y transparentes, a fin de verificar si dicha desigualdad responde a una necesidad auténtica, si permite alcanzar el objetivo perseguido y si resulta indispensable al efecto. Añade que tales elementos pueden tener su origen, en particular, en la especial naturaleza de las tareas para cuya realización se celebran los contratos de duración determinadas y en las características inherentes a las mismas o, eventualmente, en la persecución de un objetivo legítimo de política social por parte de un Estado miembro"*, baina zerbitzu-harremana aldi baterakoa dela aipatze hutsa berez ezin da arrazoi objektibotzat jo.

Beraz, ikastaroetan parte hartzeko hautaketa-irizpideak epaiak ematen digun ikuspuntutik aztertuta, esan behar dugu, aurreko balorazioetan egin genuen bezala, gure iritziz, bitarteko funtzionarioen kasuan aintzat hartzen diren ezberdintasunek, ekainaren 29ko 174/2010 Dekretuan jasotako araubidetik datozenek, Justizia Administrazioan hizkuntza-normalizazioaren prozesuari lotutako arrazoi objektiboei erantzuten diete, hortaz, behar bezala justifikatuta daude. Langileak hautatzeko Dekretu horrek ezartzen dituen lehentasun-hurrenkerei loturiko desberdintasunei buruz hitz egiten dugu, jakina.

Alabaina, ezin dugu gauza bera esan Herri Administrazio eta Justizia Sailak hartutako erabakiaren ondorioz gehitutako desberdintasunari buruz. Izan ere, bitarteko funtzionarioen talde osoari, oro har, 5 orduko eta autoikaskuntza ikastaroetan parte hartzeko aukera guztiak kentzea erabaki dute.

Horri dagokionez, sailak azpimarratu nahi izan du –hitzez hitzeko adierazpenak erabiliz– *“ez da ahaztu behar baliabide ekonomikoak ez direla mugarik gabeak” eta “batez ere azken aldian bizi dugun egoera ekonomikoa kontuan izanik, baliabide materialak arlo honetan dagoen aurrekontuari egokitu behar zaizkiola ezinbestean, horrek mugak eta murrizketak ezartzea badakar ere, ikastaroen hartzaile diren langileen kasuan”.*

Dagoeneko hau esateko aukera izan badugu ere, errepikatu egingo dugu: badakigu, jakina, diru-baliabideak erabakigarriak izaten direla ikastaro horiek antolatzeke orduan.

Hortaz, ulertzen dugu, gaur egungo egoera ekonomikoaren eraginez, administrazioa behartuta egon daitekeela eskaintzen diren ikastaroen tipologia murriztera, baimenen gehieneko kopurua mugatzera, antzeko neurri batzuk hartzera, etab.

Ekainaren 29ko 174/2010 Dekretuaren 20. artikulua eskumena ematen dio sailari mugak ezartzeko, lanorduetan euskara ikastaroetara joango direnen kopuruari dagokionez.

Izan ere, aukera horretaz baliaturik, 2014-2015 ikasturterako deialdiak zera xedatu du bere 2.6 atalean:

*“De acuerdo con lo establecido en el Decreto 174/2010, el número de autorizaciones para asistir a los cursos de euskera en horario laboral será limitado. Por ello, podrá acudir a dichos cursos hasta un 30% de la plantilla de un mismo órgano judicial, aunque la Dirección de la Administración de Justicia podrá ampliar dicho porcentaje. Para el cómputo de dicho 30% en aquellas unidades orgánica que estén situadas en distintas ubicaciones y en las que se ofrecen servicios diferenciados, el porcentaje se aplicará en cada unidad menor. Asimismo,*

*dicho porcentaje se contará de forma independiente en los módulos de 2 horas en horario laboral y 5 horas. (...).”*

Alabaina, erakunde honen iritziz, gaur egungo aurrekontu-mugei lotutako inguruabarrek, nolabait, ekar ditzakete *hainbat mugapen eta murrizketa, ikastaroetan parte hartu ahal duten langileei dagokienez*, egin den moduan egiten bada behintzat.

4.- Aurretik aipatu dugun bezala, Herri Administrazio eta Justizia Sailak ez ditu aztertu erakunde honen balorazioak, ondorioz, ez dugu nahikoa informaziorik, aurreko ataletan esandakoa aldatu edo argitu ahal izateko. Sailak bere azken erantzunean esan du bakarrik administrazioan irauteko asmoa duten langileak euskalduntzeko ahaleginak egitea, eta horrela, erabilitako baliabideen errentagarritasun sozial handiagoa lortzea dela lortu nahi duen helburua.

Erakunde honek gogoan du, jakina, Herri Administrazio eta Justizia Sailari dagokiola EAeko Justizia Administrazioan garatu nahi den hizkuntza-normalizazioaren prozesuaren inguruko erabakiak hartzea, baita prozesu horren zatia den eta langileen euskarazko hizkuntza-gaitasuna sustatzea helburu duen euskalduntze eta alfabetatze programa definitzea eta zehaztea ere.

Hori dela eta, betiere, sailaren esku egongo da aurretik onartutako araubidea berrikusteko proposamena egitea, adibidez, langileak trebatzeko aukeren inguruko jarduketa aldatzeko helburuz. Hori bai, gogoan izan behar du, aurreko lerroetan aipatu dugun bezala, debekatuta dagoela aldi baterako langileei bereizkeriazko tratua ematea.

Dena dela, hori gertatu arte, langileen gaikuntzari buruzko xedapenak ekainaren 29ko 174/2010 Dekretuan jasota dauden horiek dira, eta are garrantzitsuagoa, tartean funtzionarioak parekatzeko konpromiso bat –adibidez, abuztuaren 31ko 223/2010 Dekretuan hartutakoa bezalako konpromisoa– baldin badago, erakunde honen ustez, ez dago parekotasun hura zalantzan jartzerik eta programatutako ikastaroen hartzaileak hautatzeko orduan egon daitekeen edozein desadostasun berehala gainditu behar da, Justizia Administrazio funtzionarioak Euskal Administrazio Orokorreko funtzionarioekin parekatzeko konpromisoa kontuan hartuta, besterik gabe.

Horregatik guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Arartekoak honako gomendio hau eman dio Herri Administrazio eta Justizia Sailari:



ararteko

Herriaren Defendatzailea  
*Defensoria del Pueblo*

## GOMENDIOA

Berrikus ditzala bitarteko funtzionarioek 5 orduko ikastaro trinkoak eta autoikaskuntza ikastaroak eskatzeko aukerak mugatzen dituzten baldintzak, EAEko Justizia Administrazioari langileen euskarazko hizkuntza-gaitasuna sustatzea helburu duen euskalduntze eta alfabetatze programaren barruan egiten diren euskara ikasteko deialdi orokorretan, abuztuaren 31ko 223/2010 Dekretuak onartutako EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzura dauden funtzionarioak EAEko Administrazio Orokorreko funtzionarioekin parekatzeko konpromisoari jarraiki.